

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Hasierako onarpena ematea bidaiariak hiri barruan eta hiri artean turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza sortzeari

Udalbatzak 2016ko irailaren 23ko ohiko bilkuran erabaki zuen hasierako onarpena ematea bidaiariak hiri barruan eta hiri artean turismo automobiletan garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza berria sortzeari.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzeko, jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten alegazioak idatziz aurkezteko, alkateari zuzenduta.

Lantziego, 2016ko irailaren 30a

Alkatea

GORKA MAULEÓN OLALDE